Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

567

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 20koa, Energia eta Meategien zuzendariarena; honen bitartez baimena ematen da Gueñesen dagoen «La Jara TA» deituriko 220/30 kV-ko Transformazio Azpiestazioa aldatzeko.

Erref.: 29 ASS/SM azpi.–zk.

Esp.: AT-D-2010/57.

Bizkaiko Lurralde Bulegoan hasitako espedientea (erref.–zenbakia: 29 azpi.) aztertu da; Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk eragin du (helbidea: San Adrian kalea 48, Bilbao), eta bertan administrazio-baimena eta egikaritze-proiektua onartzea eskatzen du adierazitako erreferentziazko instalazio elektrikorako, behin abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan (2002-12-23ko EHAA) agindutako arauzko izapideak bete eta gero. Dekretu horrek eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko prozedurak arautzen ditu, batetik, energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioei dagokienez, eta, bestetik, kontsumitzaileak konektatzeko hartune, zuzeneko linea eta instalazioei dagokienez, eta betiere Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legean xedaturikoari jarraiki (1992-07-23ko BOE).

Borja Benito Navaridas jaunak izenpetutako eta Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialak 2010-07-20an, 03253/2010 zenbakiarekin, bisatutako proiektua aztertu da.

Energia eta Meategien zuzendariak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan (2009ko irailaren 24ko EHAA) esleitu zaizkion eskumenei jarraiki, honako hau

EBATZI DUT:

Baimena ematea Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresari instalazioa egiteko eta «La Jara TA» deituriko 220/30 kV-ko egungo Transformazio Azpiestazioa egikaritzeko proiektua onartzea; honako hauek osatzen dute, funtsean proiektu hori:

– T-2 deituriko transformadorea aldatzea 60 MVA-ko potentziako beste batekin, 220/30 kV erlazioa, goi-tentsioko erregulazioa eta YNd11 konexio-taldea ezaugarritzat dituena.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

567

RESOLUCIÓN de 20 de diciembre de 2010, del Director de Energía y Minas, por la que se autoriza la modificación de la Subestación Transformadora existente de 220/30 kV, denominada «ST La Jara», en Güeñes.

Ref.: Sub. n.º 29 ASS/SM.

Exp.: AT-D-2010/57.

Visto el expediente incoado en la Oficina Territorial de Bizkaia, Ref.: Sub. n.º 29 a petición de Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. con domicilio en Bilbao, c/ San Adrián, 48, solicitando autorización administrativa y aprobación del proyecto de ejecución para la instalación eléctrica de referencia citada y cumplidos los trámites reglamentarios ordenados en el Decreto 282/2002, de 3 de diciembre (BOPV de 23-12-2002), por el que se regulan los procedimientos de autorización administrativa para la construcción, modificación, explotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica, así como de las acometidas, líneas directas e instalaciones de conexión de consumidores, y de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria (BOE de 23-07-1992).

Visto el proyecto presentado, firmado por D. Borja de Benito Navaridas, y visado por el Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Bizkaia, el 20-07-2010 con el n.º 03253/2010.

El Director de Energía y Minas, en virtud de las atribuciones conferidas en el Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo (BOPV de 24-09-2009).

RESUELVE:

Autorizar a Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. la instalación y aprobar el proyecto de ejecución de la Subestación Transformadora existente de 220/30 kV denominada «ST La Jara» consistente básicamente en:

– Sustitución del transformador denominado T-2, por otro de 60 MVA de potencia, relación 220/30 kV, regulación en alta tensión y grupo de conexión YNd11.

– 30 kV-ko egungo enbarratuen ordez, duplex erako Al kable biluzia jartzea.

– T-1 transformadorearen 30/30 kV-ko tentsioko erreguladorea birkokatzea, Karrantzako linearen irteeran jarriz eta horretarako posizio osoa instalatuz.

– 30 kV-ko T-2 transformadore berriari lotutako etengailuaren, intentsitate-transformadoreen eta tximistorratzaren ordez, tresneria berria jartzea.

– Barren egungo tentsio-transformadoreak ordeztea.

– Barren ebakigailuak ordeztea honako posizio hauetan: T-1 Transformadorea, Karrantza, Balmaseda 1, Balmaseda 2 eta Alonsotegi.

– Babes-panelak egokitzea.

Ebazpen hau abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera eta honako baldintza orokor hauekin bat eman da:

Bat.–Onartutako proiektuari jarraiki egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatu eta baimenduko diren aldaketekin.

Bi.– Martxan jartzeko epea urtebetekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hiru.–Lanak amaitzean, instalazioen titularrak Bizkaiko Lurralde Bulegoari jakinarazi beharko dio lanen amaiera, behin betiko onarpena eman eta abiaraztearen akta egiteko.

Lau.– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumeneko eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere, eta horiek aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, ebazpen hau hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, eta jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 20a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

– Sustitución de los embarrados existentes en 30 kV por cable desnudo Al en formación dúplex.

– Reubicar el regulador de tensión 30/30 kV del transformador T-1, colocándolo en la salida de línea de Carranza, instalando una posición completa para el mismo.

– Sustituir por nueva aparamenta el interruptor, transformadores de intensidad y pararrayos asociados al nuevo transformador T-2 en 30 kV.

– Sustituir los actuales transformadores de tensión de barras.

– Sustituir los seccionadores de barras de las siguientes posiciones: Transformador T-1, Carranza, Balmaseda 1, Balmaseda 2 y Alonsótegi.

– Adaptación de los paneles de protección.

Esta Resolución se concede de acuerdo con lo dispuesto en el citado Decreto 282/2002, de 3 de diciembre y con las condiciones generales siguientes:

Uno.– Las obras deberán realizarse de acuerdo con el proyecto aprobado, con las variaciones que en su caso se soliciten y autoricen.

Dos.– El plazo de puesta en marcha será de un año contado a partir de la presente Resolución.

Tres.– El titular de las instalaciones dará cuenta de la terminación de las obras a la Oficina Territorial de Bizkaia, a efectos de reconocimiento definitivo y extensión del acta de puesta en marcha.

Cuatro.– La presente Resolución se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la obligación de obtener las mismas. Así mismo, se concede sin perjuicio de posibles derechos de terceros y dejando a salvo el derecho de propiedad.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de diciembre de 2010.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.